

2017ko EKAINAREN 28ko EZOHIKO OSOKO BILKURAREN LABURPENA

1. Legea hertsiki bete dadin onestea Lurraldearen Antolamenduri eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 76. eta 78. artikuluetan ezartzen diren betebeharrei dagokienez, eta, hain zuzen ere, aipatu artikuluei jarraikiz, hirigintzako iragarkiak legez dagokien prentsa-komunikabideetan argitaratu daitezten, eta ez derrigorrezkoa ez den komunikabideetan, bizilagunei beharrezkoak ez diren gastuak saihesteko.

Alkateak Agrupacion Ultzama Udal taldeari eman dio hitza gai zerrendaren puntu honetan proposatutako akordioaren arrazoiak adierazi eta azaltzeko.

Gauzak horrela, Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arreguik hartu du hitza, honek osoko bilkuraren eskaeraren idazkiaren edukia eta honen argumentuak berresten dituztela esan du, eta behin Udal idazkariaren txosten juridikoaren edukia aztertuta honen inguruan zer egin behar den jakin nahi dute: orain arteko komunikabideetan argitaratu behar al dira iragarkiak Berria egunkarian argitaratzea legezko betebeharra ez izanik ere?. Dirua itzuli behar al zaie aipaturiko espediente urbanistikoetan interesatutako pertsonen non aipaturiko egunkarian ere argitaratu zen? Edo haiekin hitz egin edo akordio batera heldu behar al da honen inguruan?

Jarraian aipaturiko zinegotziak hurrengo kontuak galdetu dizkio Udal Idazkariari: Zer gertatzen da orain onartutako espediente urbanistikoekin? Honi dagokion errekurtsoren bat egongo balitz baliogabe geratu al litezke?

Udal Idazkaritzatik kontu honen inguruan erantzun zaio, bere iritziz argitalpenaren bizio edo akats honek ez dakar eskubide osoko baliogabetasunik ez baita "legalki ezarritako prozedimendua erabat baztertuz akordio bat hartzearen" kasu bat, hori bai, ordenamendu juridikoaren aurkakoa izateagatik baliogabetasun-biziotzat har liteke, baina kasu guztietan zuzentzen ahal dena orain aipaturiko iragarkiak Diario de Navarran argitaratuko balira.

Jarraian Martinez Urionabarrenechea Alkateak hartu du hitza eta Agrupacion Ultzama Udal taldeak aurkeztutako proposamenari honela erantzun dio:

- Bi urteen arteko gastuaren konparaketa (2015 eta 2016), bereziki Udalean tramitatu diren espediente urbanistikoaren kopuruari dagokio. Horrela, 2015. urtean 4 espediente tramitatu ziren eta, aitzitik, 2016an 12 tramitatu ziren.

- Jada aurreko osoko bilkuretan adierazi zen moduan argitalpenetarako komunikabideen aukeraketa irizpidearen arrazoia batez ere linguistikoa da: Helburua iragarki bat gaztelaniaz eta beste bat euskaraz argitaratzea da, eta azkeneko hau euskaraz editatutako komunikabide batean euskaldunek irakurtzen dutena baita.

- Aurreko osoko bilkuran gertatu zen moduan, idazkariak berak, bere aholkulari juridiko funtzioan, komunikabide batean argitaratu behar zela adierazi zuen. Ondoren, tramitazio ezberdinetan ez zen inongo oztopo edo

abisurik izan beste modu batera egin behar zela zioena, horrela balitz bere aldetik ez luke horrela jokatu.

- Beste osoko bilkura batean gaia berriro atera zen, eta kasu honetan Udalaren aholkulari juridikoak garbi adierazi zuen Nafarroan editatutako bi prentsa komunikabideetan argitaratu beharko liratekeela eta ontzat eman zuten balioeztatze hori eta idazkaritzatik markatutako printzipioak jarraitzeko agindu zen, horrela idazkariak markatu zuen irizpide juridikoa errespetatzeko.

Horregatik guztiagatik, Agrupacion Ultzama Udal taldearen proposamenaren aurrean EH Bildu Ultzama taldeak proposamen propioa aukeztu du gaiaren inguruan, botoa emateko baita ere, honako hau izanik proposamena:

- 1.- Toki administrazioen iragarkien bitartez Aniztasuna bermatzeko eta hiritarregana iristeko, legea zabaltzea komunikabide ezberdinen bidez egin ahal izateko, Lurralde-antolamendu eta hirigintzako gaur egungo 35/2002 Foru legearen sistema murriztailea hautsiz.
- 2.- Nafarroako Gobernuari eskatzea aipaturiko Foru legearen aldaketa prozedura hastea azter dezan, lehen puntuari erreferentzia egiten zaion atalean.
- 3.- Akordio honen edukia Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari helaraztea.

Alkateak jarraitu du eta adierazi du 2017 otsailetik Udal bulegoetako pertsonalari, Diario de Navarra (erdaraz) eta Diario de Noticias (euskaraz) komunikabideetan argitaratzeko agindu zitzaizola beraien aldetik inoiz ez dela asmo txarrik egon frogatzen duena eta legeak dioena betetzeko daudela. Komunikabide ezberdinetako iragarkien prezioari dagokionez informatu du Diario de Navarran 384,05 € gehi beza balio duela, Diario de noticiasen 275,88 € gehi beza eta Berria egunkarian 270,07 € gehi beza.

Era berean komentatu du 2007ko abuztuaren 1eko Udalaren osoko bilkurako aktan, Osacar lurre zinegotziak egindako gai honen gaineko galdera baten aurrean, Perez Arreguiren (data hartako alkatea) erantzuna eta irizpidea agertzen da honen inguruan eta Diario de Navarrako iragarkiak garestiak direla, honakoa:

12.- Galde eskeak.

Osacar lurre zinegotziak hartu du hitza hainbat galdera egiteko.

4. galdera: Tirada gehien duten egunkarietan argitaratzen diren iragarki ofizialak zergatik egiten dira erdara hutsean eta bat bera ere ez euskaraz?

Alkateak erantzun du Diario de Navarran iragarkiak argitaratzea oso garestia dela eta hori dela-eta egiten direla erdaraz bakarrik; osoko bilkuran hitzartu zen Diarioan argitaratutakoak erdara hutsean izan zitezene bere kostu handiagatik, eta Diario de noticias-en argitaratutakoak elebiz izan zitezene.

Kontu hauen aurrean Agrupacion Ultzama taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du Alkateak adierazitakoarekin ez datorrela bat bere irizpidea bi hitzkuntzetan argitaratzekoa baita eta izan baita, eta Idazkariari galdetu dio ea legezkoa izanko litzatekeen iragarkiak

euskaraz bakarrik argitaratzea, honi Idazkariak erantzun dio denbora pixka batekin kontua aztertu behako lukeela eta orain ezin diola irizpide sendo eta oinarriidun bat eman.

Perez Arregui zinegotziak jarraitu du eta adierazi du ez duela 2017ko aktan esaten dena ukatzen baina ez dela kasu konkretu hartaz gogoratzen noski. Nolanahi ere orain lehen bezala egiten da –iragarki bat euskaraz eta beste bat erdaraz-, eta orain Bilduk proposatzen duena ez da oso ezberdina. Askotan iragarki labur elebidaunak egiten ziren, horrela espazioa saihesteko eta merkeago izateko, eta soluzio hori aukera ona izanzen zela. Funtsean, amaitzeko adierazi du legeak Nafarroak editatutako egunkarietan argitaratzea beharrezkoa dela dio (Diario de Navarra eta Diario de Noticias izanik) eta behin betebeharrak hori beteta oso ondo iruditzen zaiola Gobernu taldeak beste komunikabide batzuetan argitaratzea erabakitzea... baina beti Udalaren kontu, eta ez interesatutako pertsonaren kontu, horri soilik nahitaezko iragarkien kostuak eragin ahal baitizkio.

Azkenik EH Bildu Udal taldeko Picabea zinegotziak Perez Arregui zinegotziari erantzun dio oraingo kasuan kointzidentzia bat egon arren ez dutela AU Udal taldearen akordio proposamenaren alde egin behar, beraiek beraien propioaren alde daudela, non kontu honen inguruan lege aplikagarrian aldaketa bat proposatzen den beste komunikabide batzuetan argitaratzen utz dadin.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Erviti, Herranz, Oyarzun, eta Perez Arregui.
- Aurkako botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Hori guztia dela-eta ez da eguneko gai zerrendako Agrupacion Ultzama Udal taldearen puntu honen proposamena onartu.

Jarraian eguneko gai zerrendako puntu honi buruzko bigarren bozkaketa proposatu da, Alkateak proposatu duena izan dena eta lehenago jasota dagoena.

Agrupacion Ultzama taldeko Perez Arregui zinegotziak esan du bere taldeare iritziaren arabera bigarren akordio proposamen honen bozketa orain egitea ez da egokia gauza eta gai desberdinak direla ulertzen baita, eta hori dela-eta bereizitako eguneko gai zerrendako puntuetan tratatu behar beharko liratekela.

Kontu honen aurrean Martinez Urionabarrenechea Alkateak hartu du hitza eta erantzun du bere ikuspuntutik bi akordio edo akordio proposamenak gai berdinari buruz dihardutela eta horregatik gai zerrendako puntu berean bozkatu daitezkeela ulertzen du.

Idazkariari kontu honen inguruan galdetuta erantzun du bere irizpidearen arabera bi akordio/proposamenak puntu honetan sar daitezke, eguneko gai zerrendako enuntziatua ikusita.

Udalbatzako kideen artean Agrupacion Ultzama taldearen akordioaren inguruan adostasunik lortu ez dutenez, EH Bildu Udal taldeak planteatutako akordio proposamena bozkatu da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Erviti, Herranz, Oyarzun, eta Perez Arregui. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

2. Udal Idazkaritzari eskatzea txosten juridiko bat egin dezan, mindan oinarriturik gasa eta elektrizitatea sortzeko Iraizozko plantaren obra publikoaren esleipena eta geroko kudeaketa kontratatzeari dagokionez, (horretarako onetsi den ikerketa batzordearen bitartez) Nafarroako Parlamentuaren jarduketari dagozkion zenbait gairen legezkotasunaz ariko dena.

Alkateak Agrupacion Ultzama Udal taldeari hitza eman dio eguneko gai zerrendako puntu honetan proposatutako akordioaren arrazoiak eta oinarriak adierazteko eta azaltzeko.

Gauzak horrela, Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arreguik hartu du hitza eta esan du Udal Idazkaritzaren txosten juridikoaren edukia eta konklusioa ikusita, bere taldetik dagozkion jokaera egokiak aztertuko direla, eta bere kasuan, ezohiko osoko beste bilkura baten eskaera.